



xa sencillamente
transformar la realidad



www.mensajesenredados.com


apirila 2016

Begirada soziala Eskolapioen Bilboko kristinau alkartetik

Hezkuntza, ezinbesteko tresna errealidadea eraldatzeko

Hezkuntza oro da eraldatzailea?

Hezkuntza sekula ez da neutrala eta beti ditu, gitxi-asko ikusgai, mugatzen daberen helburu batzuk. Gizartean txertatzea izan daiteke, sistema ekonomikora moldatzea, arrakasta pertsonalaren bakarkako bilaketa, mundu hobea eraikitzeke balioen ereitea, ikaslearen edo bere familiaren beharrezane berehala erantzutea, gizon-emakume bakotxaren alderdi guztien garapena... eta beste asko



Calasanz eskolapioen fundatzaile eta 1597an danentzako eskolaren sortzaile. Izan zanak, hiru helburu jarri ebazan: umearen zoriona orain eta betirako, mundu hobearen eraikuntza gizadi osoarentzat eta Jaungoikoak atsegin dauana egin.

Barrikuntza pedagogikoa eta metodo zehatz batzuk hezitzaileen arreta nagusia erakarten daberen bitartean, ezinbestekoa da behin eta barriro esatea, hezkuntza eraldatzailearen giltzak benetan lortu gura duguzan helburuetan dagozala, ikaslearen arteko hartu-emon pertsonalean eta irakasleakazko hartu-emonen eta heziketarako ekintza eraldatzaileak gauzatzeko bide zehatzak eskaintzean.

Hezkuntza honetarako baldintzak

Hona hemen baldintza batzuk, hezkuntza, gizakiaren zein gizarte osoaren eraldaketa ahalbideratzeko gauza izan daiten:

- Gizon-emakumearen alderdi guztiak kontuan hartu: intelektuala, afektiboa, soziala, fisikoa, transzendentea, zentzunezkoa...
- Hezkuntzan lagun egin prozesu osoan zehar, haurtzarotik helduarora arte, beti be etenbako heziketan.
- Eragile hezitzaile desbardinakaz –familia, eskola, ingurua,...- alkarlanean jardun.
- Jarduera hezitzailea ikaslea mobitzen dan eremu guztietara –eskola, familia, aisialdia...-hedatu.
- Guztien onari jagokozan balio guztiak kontuan izan: bakea, alkartasuna, giza eskubideak, bizikidetasuna...
- Ikaslearen protagonismoa ahalbideratu bere hezkuntza prozesuan eta beragaz bizi diran eta prozesua konpartitzen daberen personeren prozesuan.
- Erreferentziako ereduak eskaini, kontrastatzeko eta motibatzeke; gertuko hezitzaileak izan daitezke, besteak beste, erreferentzia horreek.
- Gizartean eraldatzaile diran eta danontzako mundu hobea ahalbideratzen daberen errealidadeetan parte hartzeke konbitea egin.
- Esperientzia esanguratsuak ahalbideratu.
- Maisuari otoitz egin, falta dana osatu daian.

Hainbat hamarkadetan hartutako eta berretsitako konpromisoak ugariak izan badira be, eskolara joateke adina eben 57 milioi neska-mutike inguru ez zan eskolara joan 2011n eta, ondorioz, kalidadezko hezkuntza jadesteko eskubidea ukatu egin jaken. Munduan, eskolara joateke adinean dagozan mutikoen %64 eta neskatuen %61 inguru baino ez dago bigarren hezkuntzan matrikulatuta. Neska-mutike horreen %36a eta %30a, hurrenez hurren, gitxienez aurreratutako herrialdeetan bizi da



HEZKUNTZA ERALDATZAILEA DALA ERAKUSTEN DABEN UNESCOREN ESTADISTIKAK


- **Hezkuntzak burujaubetza emoten deutse emakumeei,** jagokezan eskubideak ezagutzera emonez eta horreek eskatzeko ezinbesteko konfiantzaz hornituz.
- **Hezkuntzak tolerantzia suspertzen dau,** oinarri demokratiakoak, euron euskarri diran tolerantzia eta konfiantza ulertzen lagunduz eta, aldi berean, bizi diran gizarteko jarduera politikoetan parte hartzeko adore emonez.
- **Hezkuntza arloko bardintasunak lana aurkitzeko aukera gehiago emoten dau, garapen ekonomikoa ahalbideratzeaz batera.** Ume guztiek, edozein izanda be euren gizarte jatorria eta inguruabarrak, irakaskuntza jadesteko aukera bera izango balebe horren ondorioz izango litzateken produktibitateak garapen ekonomikoa bultzatuko leuke: 40 urtetan, herrialde baten per capita sarrerak %23 gora egingo leuke.
- **Hezkuntza ingurumen-arazoen konponbideetako bat da.** Izan be, ikasitako norbaitek ura eta energia eraginkortasun handiagoz erabiliko ditu eta etxeko hondakinak birziklatu egingo ditu.
- **Hezkuntzak amen bizia babestu egiten dau.** Emakume guztiek lehen hezkuntza egingo balebe, ezkontza goiztiarrak eta umeen heriotza-tasa seiren batera gitxituko litzateke eta amen heriotza-tasa heren bira.
- **Hezkuntzak umeei bizia salbatzen deutse,** emakumeei laguntzen deuselako umeen gaixotasunak prebenitzen, hasierako sintomak ezagutzen, laguntza bilatzen eta neurriak hartzen.
- **Hezkuntzak gosea eragozten dau.** Emakume guztiek bigarren hezkuntzako ikasketak burutuko balebez, euren seme-alabek ze elikagai behar daben jakingo leukie, zeintzuk diran ezarri behar dabezan garbitasun-arau nagusiak eta, gainera, aginpide gehiago izango leukie etxean, ezinbesteko zainketak emoteko.



Datu honeek argitaratuz, 2015etik aurrera garapenerako egitarau barrietan bardintasunezko eta kalidadezko hezkuntzari lehentasuna emoteko eskatu gura jake munduko agintariei.

(<http://www.unesco.org/new/es/media-services/in-focus-articles/new-unesco-data-proves-education-transforms-development/>).

Casi la mitad de los países no ha logrado la escolarización primaria universal



#eduVerdict

Infografía para el Informe de Seguimiento de la EPT en el Mundo 2015
La Educación para Todos 2000-2015: logros y desafíos



Estekak gehiago jakiteko:

- Umeen egoera munduan 2015 (Unicef): <http://sowc2015.unicef.org/?lang=es>
- Hezkuntza guztientzat (Unesco): <http://es.unesco.org/gem-report/report/2015/la-educaci%C3%B3n-para-todos-2000-2015-logros-y-desaf%C3%ADos#sthash.PBPq80N8.dpbs>
- Hezkuntzaren aldeko Munduko kanpaina: <http://www.cme-espana.org/>

Proposamena:

Informazioa jaso eta hezkuntzaren aldeko munduko kanpaina lagundu, batez be apirilaren 25 eta 30 bitartean ospatuko dan **SAMEn (Hezkuntzaren aldeko ekintzarako munduko astea)** parte hartu. Barri gehiago: www.cme-espana.org/same/#lasame2016

Hezkuntza jardueretan parte hartu boluntario lez.

Hezkuntzaren bitartez mundu hobearen alde jarduten dauan *Itaka-Escolapios* sarean esku-hartu: www.itakaescolapios.org